

AZKORTAPE taldeak erakutsitako aldizkaria

Zulotik

43 zenbakia

2011ko Apirila

Argazki erakusketa

Zulotik aldizkariaren
10. urteurrena dela eta

Ipuinak
Lamiñak hondatu
esne irakinaz

Patatxeak
eta Portugetxeak

I. Abendu kantu topaketak Ean

I. Abendu kantu topaketak Ean



tuen I. topaketaz gozatu ahal izan genuen.

Horretarako, herrian hain ezaguna dugun ohitura hobeto ezagutu eta antzerako tradizioak dituzten herrietara jo genuen topaketan parte hartzeko gonbidapena luzatu asmoz. Informazio bilketa honetan hainbat eta hainbat herrietako ohiturak ezagutu genituen eta jatorri berdina izan arren ez genuen guztien arteko berezitasun eta ezberdintasunak zuzenean ezagutzeko aukera galdu nahi. Honela, lehenengo topaketako partaideak gonbidatzeko, herrietako talde ezberdinekin harremanetan jarri eta azkenik Iurreta, Lekeitio eta Gernikako taldeak etorri ziren.

Pasa den abenduaren 11an, larunbatean, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, San Juan elizan abendu kan-

Kontzertuan lehenak gure neska-mutilak izan ziren. Hauen eskutik, sarrera dotore bat egin ostean, ohiturak bizirik dirauela argi utzi zuen emanaldi hunkigarriaz gozatu ahal izan genuen.

Ondoren Lekeitioko Marijesien txanda izan zen. Hauen kasuan ohiturak eten bat izan omen zuen baina 1986. urtean berreskuratzeko ahaleginak egin eta ordutik abenduaren 23ko iluntzean urtero urtero Lekeitio kaleetan zehar abestera ateratzen dira bertako andragizonak.

Kontzertuan zenbait estrofa



abestu zituzten eta emakume baten solista ahotsak sentsibilitate berezia ematen zion hauen kantu ohiturari.

Lekeitiarren atzetik Iurretako Abenduaren txanda izan zen. Iurretan ere, Lekeitio modura

abenduaren 23an ateratzen dira kalerik kale eta baserriz baserri egun osoan zehar abesten. Adin ezberdinetako neska-mutil eta gizon-emakumeak elkartzen dira eta kontzertuan argi utzi zuten moduan energia handiko tradizioa mantentzen dute trikitiaz lagundu eta makilekin lurra gogor joaz. Hauen kasuan, modu ikusgarrian, solista lanak ahots indartsudun bi gizonek bete zituzten.

Ondoren Gernikarrak egin zuten sarrera kantu topaketari amaiera emateko. Gizon-emakumez osaturiko talde honek argi utzi zuen urteroko lanean bederatziurrena zaintzeko partaideak ez dituztela falta eta solista lanetan ibiltzen den Denis Azkaratek taldearen jarraipena bermatua duela.

Azkenik talde guztien berezitasunak entzun eta doinu ezberdinak ezagutu ostean, parte hartu zuten guztiak elkartu eta Hator hator abestu zuten Eako I. Abendu Kantu Topaketari amaiera paregabea emateko.

